

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 41/2024 mozioa, apirilaren 11koa, Andagoiako herrigunean uholdeekin dauden arazoei buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, 2024ko apirilaren 11n egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

41/2024 mozioa, apirilaren 11koa, Andagoiako herrigunean uholdeekin dauden arazoei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, ahalik eta lasterren eta Kuartangoko Udalarekin eta eragindako administrazio-batzarrekin lankidetzan arituz, beharrezko neurriak aurkez ditzala Baia ibaiak gainezka egiten duenean Andagoia herriko bizilagunak komunikaziorik gabe gera ez daitezen.

2. Arabako Batzar Nagusiek URari eskatzen diote ezen, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan eta eragindako toki-erakundeekin adostuta, beharrezko neurriak har ditzala, Andagoia parean Baia ibaiak gainezka egin ez dezan, besteak beste, ibaia garbitzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 11

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*